

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2026KO
MARTXOAREN 6A
bidasoa.hitza.eus
oarsoaldeia.hitza.eus
991. ZENBAKIA

Mikroak, argiak... eta emakumeak?

Musikaren arloan emakumeek oholtzak irabazteko borroka egin behar dute. Gizonak dira gehiengo. HITZAK emakume musikarien iritziak bildu ditu • 4-7

**Hondarribiko
Berdintasun
Mahaian, lan
mamitsua** • 12-13

**Fini Rubioren
ondarea,
beharra
dutenentzat** • 22-23



Mondragon
Unibertsitatea

KALITATEZKOA

BERRITZAILLEA

PRAKTIKOA

ATE IREKIAK UNIBERTSITATE GRADUAK

INGENIARITZA

- Arrasate MARTXOAK 7
MARTXOAK 14
- Goierri-Ordizia MARTXOAK 11
- Galarreta EKO Campus MARTXOAK 14
- Bilbao AS Fabrik MARTXOAK 14

ENPRESA KUDEAKETA

- Bilbao AS Fabrik MARTXOAK 7
- Oñati MARTXOAK 7
- Bidasoa-Irun MARTXOAK 7

EKINTZAILETZA

- Bilbao BBF APIRILAK 23
- Bidasoa-Irun APIRIALK 23
- Oñati APIRILAK 23

HEZKUNTZA

- Eskoriatza MARTXOAK 7
- Bilbao AS Fabrik MARTXOAK 7

KOMUNIKAZIOA

- Aretxabaleta MARTXOAK 7

HUMANITATEAK

- Bilbao AS Fabrik MARTXOAK 7

GASTRONOMIA

- Basque Culinary Center
- Donostia MARTXOAK 7

Eman izena!

www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak



LEARNING
FROM
REALITY

Oiartzualdeko Hedabideak S.L.ko
kideak:

Oiartzun Irratia
Orratz! Kultur Elkartea
Antxeta Irratia
Bertako Hedabideak
Pausu media
Lau Haizetara
eta Oarsoaldeko beste
53 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten
erakundeak.

Udalak: Errenteria, Lezo, Oiartzun,
Pasaia, Hondarribia.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Oiartzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

SS-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petrirena.

Produktzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:

Irun kalea 8 behea,
20100 Errenteria-Orereta.

Telefonoa:

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Publizitatea:

Telefonoa:

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua
(zalantzak argitzeko,
harpidedun egiteko):

943 30 30 35

harpidetza@hitza.eus

oarsobidasoa.hitza.eus

oarsoaldea.hitza.eus

bidaso.hitza.eus



Gizonak

AITOR SALABERRIA OIARTZABAL

LEZO



Gizonak maiz galdetzen
dio bere buruari behar
bezain gizona den.

- Gizona urduritu egi-
ten dute galdera horri erantzuteko
zailtasunek.

- Gizonak, dena den, txikitatik daki
gizona dela.

- Gizonari ibilkeran
antzematen zaio hala
dela.

- Gizonak besteen be-
giradagatik jakiten du
ez dela emakumea.

- Gizonak ere sufri-
tzen du, baina ezku-
tuan egiten du negar.

- Gizonari sokamutu-
rrak gustatzen zaizkio,
zezenketak ere bai.

- Gizonak futbola
maite du.

- Gizonak auto bizkorak ditu.

- Gizonak ongi pasatzeko harriak
jaurtitzen ditu.

- Gizonak botatzen ditu bonba nu-
klearrak.

- Gizonak ezin ditu infusioak edan, ez
dira aukera bat.

- Gizonak ez ditu aurpegirako kremak
erabiltzen.

- Gizonak ez du zertan arduratu bere
itxuraz, hala nahi ez badu.

- Gizonak pixa zutik eta soilik zutik
egiten ikasten du.

- Gizonak nerabegarora iristerako ja-
kin behar du gizon batek nolakoa izan
behar duen.

- Gizonak praktikan jarri behar du
ikasitakoa, biolentziarik jasan nahi
ez badu.

- Gizonak beste gizonekin dutxatze-
rakoan astakirtenkeriak egin behar
ditu.

- Gizonak ezin dute potoloekin du-
txatu.

- Gizonak ezin dute behar bezain gi-
zon ez diren gizonekin dutxatu.

- Gizonak, nerabe garaietan, adineko
neskekin fantasia sexualak izan ohi
zitzen.

- Gizonak, nerabe garaietan, gelaki-
deen amekin egiten du orain amets.

- Gizonak izaten dira eraso gehienen
erantzule.

- Gizonak aski biolen-
tzia du besteengan
aplikatzeko.

- Gizonak ingurukoak
moztu behar dituzte
iritzia emateko.

- Gizonak ahots lodiz
hitz egiten du, arreta
handiagoa merezi
duelako.

- Gizonak ez du oihu-
rik egin behar entzun
dezaten.

- Gizonak arrazoia izaten dute.

- Gizonak ez dute zalantzarik.

- Gizonak garaiz daki zer egin behar
duen gizon izateko.

- Gizonak ez du Martxoaren 8an,
Emakume Langilearen Egunean bo-
rroka egiten, gizon langilearen eguna
ospatzen ez delako. ■

«**Gizonak
ahots lodiz
hitz egiten
du, arreta
handiagoa
merezi
duelako**»



Lide Hernando, Oartzungo Ugaldetxon. Imanol Saiz Gomez de Segura

Oholtzatik at ahotsak altxatzen

Musikaren sektorea erabat maskulinizatuta dagoen arren, azken urteotan gero eta emakume gehiago igo dira oholtzara. Emakume taldeen loraldia eman den arren, askok oraindik ere erasoak jasaten dituztela salatu dute.

GORKA CORREYERO LLAMAS

Espazio bat bereganatzeko borroka egin behar dute askok eta askok, bizitza horrelakoa omen da. Oholtzak musikaren arloan oso maskulinizatatuak egon dira betidanik, zer esanik ez teknikari postuak. Zorionez, egun, egoera bestelakoa da eta gizonen espazio horiek bereganatu dituzte Euskal Herriko emakume artistek. HITZA Oarsoaldeko eta Bidasoko lau artista-rekin bildu da Martxoaren 8aren atarian. Lide Hernando abeslari eta gitarra jotzaileak, Eneritz Furryak ekoizle eta

« Saretzearen bitartez bakarrik lortuko dugu espazio legitimoa izatea »

LIDE HERNANDO MUÑOZ
ABESLARIA ETA GITARRA JOTZAILEA

konpositoreak, eta The Iingles taldeko Oihane Bengoetxea baxu jotzaileak eta Maider Peluaga gitarra jotzaileak gaur egun Euskal Herriko panoraman bizi dutena kontatu dute.

Laurek argi dute azken urteotan egoera hobetu dela, eta plaza hartzea emakumeen lana izan dela. Emakume artisten loraldiak haziak landatu ditu oholtzan. «Betidanik izan dira emakumeak oholtza gainean, baina gaur egun duten ikusgarritasuna ez dute orain arte izan», adierazi du Bengoetxeak. Ikusgarritasunean dago fokua. Ahobatez uste dute emakumeek osatzen duten taldeen loraldia eman dela Euskal Herriko panoraman, datuak hor daude. «Horrek ez du kentzen karteletan gutxiengoa izaten jarraitzen dugula», dio Hernandok. Bide beretik, Eneritz Furryak argi du besteek egingo ez duten lan zikin hori egiteko ardura hartu dutela, saretzekoa.

Jaialdietan gizonen taldeen eta emakumeen taldeen arteko aldea oso handia da. «Kasu onenean emakumezkoen taldeen kopurua %40a iritsiko da, baina inoiz ez parekide izatera». Hernandok ez ditu ahaztu nahi izan Euskal Herrian antolatzen diren jaialdi feministak, baina salbuespen dira. «Orokorrean, egoera iraultzeko eta forjatzeko egiten diren jaialdiak izaten dira». Jaialdi horiek ere oso baliagarriak dira emakume musikarien arteko harremanak eraikitzeko eta gazteak animatzeko.

Saretzerik gabe, jai

Emakume artisten loraldia ulertzeko gakoa saretzea da. Urte asko daramatzate elkar laguntzen eta elkarren berme izaten. Edozein erasoren aurrean emakumeak elkartu, eta berehala eraso oro salatzen dute, adibidez. Erabateko

konpromisoa dute. «Horrela bakarrik lortuko dugu espazio legitimoa». Hernandoren hitzak dira horiek; musikan ibilbide luzea duen arren, espazio eta onartze hori borrokatzeko bide luzea egin behar dutela dio. Saretzeak euren arteko konplizitatea eta babesa ekarri du, gazteak eta helduak batera doaz. «Hala ere, parekidetasun natural batetik heltzeko urrun gaude oraindik».

Horren eredu dira oholtza gainean jasan behar izan dituzten erasoak. Furryak horren gaineko gogoeta egin du: «Emakume musikarion artean partekatu izan dugun kezka da, ez ote garen geure buruari presio handia jartzen diogunak». Nahiz eta oholtza gainean matxismoa zuzenean «bortizki» ez jasan, psikologikoki duten segurtasun eza salatu nahi izan dute. «Batzuetan, nire burua nik nahiko nuena baino gehiago behartzen dut», gaineratu du Hernandok.

Kontzertuaren aurreko urduritasunaz gain, hamaika galdera egin behar dizkiote euren buruari: «Zergatik egon behar gara gu eszenatokian?». Peluagak horren harira honakoa gehitu nahi izan du: «Horrek ere gudan zalantzak sortzen ditu, une oro ari gara gure lana epaitzen eta zalantzan jartzen».

Galdera ugari, erantzun gutxi

Publikoak izan dezakeen jarrera aldatzeko erantzukizuna gizarte osoaren lanketa da. «Gizarteak lan handia behar du berdintasuna lortzeko, eta azkenaldian aurrera egin ordez, eskuin muturrak atzerapausoak ematea eragin du». The Iiingles taldeko kide hondarribiarrek gertutik bizi dute



Eneritz Furryak, Irungo Azken Portun. I. Saiz Gomez de Segura

«Artista gazteek ere gaiarekiko kontzientzia handia dutela erakutsi dute»

ENERITZ FURYAK

KONPOSITORE ETA EKOIZLEA

berdintasunaren auzia, «munduan ez bada berdintasuna bermatzea lortu, gure herrian oraindik eta gutxiago».

Oholtzan erabateko berdintasuna izango balitz, emakume artistek ez lukete «iruzurgilearen sindromea» aipatuko. Zoritxarrez, egoera oso bestelakoa da. Artista guztien ahotan izan da gaia: «Ausardiari dagokionez trabak jartzen

ditu». Azken hilabeteotan Hernandok oso presente izan du hori Fermin Murguzarekin batera egindako biran. «Orain arte ez nuen iruzurgilearen sindromea sentitzen, espazio handietan milaka pertsonaren aurrean jo behar izateak sindromea piztu dit», aitortu du: «Atzeraka egiten ninduen indarra zen». Galdera ugari egin behar izateak, psikologikoki lanketa handia eskatzen du. «Merezi dugu?» esate hutsak, iruzurgilearen sindromea agerian uzten du haren ustez.

«Ez nuen espero zuek horren ondo jotzea». The Iiingleseko kideek askotan entzun behar izan duten esaldia da. «Nik uste dut guregana hurbiltzen direla gizonezkoen talde batera hurbiltzen ez diren moduan», argitu du Pe-



MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Eman tokia berdintasunari

Emakumeen eskubideak esparru guztietara zabaltzen jarrai dezagun.



araba álava
herri gatazkari, aldarrikatzen hasi



GIPUZKOA
Euzko Legebiltzarra



luaga hondarribiarrak. «Gizonezkoek ez dute emakumeok sufritzen dugun zapalkuntza hainbeste sufritzen», adierazi du Hernandok.

The liingles taldea 2020an sortu zen, eta bertako taldekideek 16, 17 edota 18 urteko mutil gazteek egiten duten bidea 30 urterekin hasi zuten, alegia, taldea sortzeko lehen urratsa egin zuten adin horrekin. Nahi eta ezin. Hala ibili dira urte luzez taldea sortu arte. Oraindik ere ikaste prozesuan murgilduta dihardute taldekideek. Behin kontzertu batean izan zuten pasadizoa komentatu dute. «Teknikoak asmo txarrez esan zigun, ea nola ez ginen gai musikako oinarritzko teknika jakiteko».

Hitzek ekintzek baino indar handiagoa dute askotan. Ahultasuna batzuentzat tabua dela dio Hernandok, «nola erakutsiko dugu bada ahultasun edo zaurgarritasun hori?». Emakumeak emozioen kudeaketarekin zintzoagoak direla esan dute laurak. «Gizonezkoak eroso daude, eta ez dute emakumeok egin behar dugun lanketa gehigarria egin behar. Gizonek, psikologiko ki gaizki pasa arren, ohituago daude emozioak ezkutatzera eta aurrera egitera», gehitu du. Gizonezkoak emozioak ezkutatzeko ari diren bitartean, emakumeek dena partekatzen dute euren artean.

Ahantzuran erortzeko beldurra

Eneritz Furryakek emakumeen artean duten saretzearen garrantzia nabarmendu du. «Gazteek ere urteak darमतzagun artistokin bat egin dute, eta haiek ere gaiarekiko kontzientzia han-



The liingleseko taldekideak, Hondarribiko Psilocyben. I. Saiz

dia dutela nabarmendu nahiko nuke». Hasi zeneko urteak gogoratu ditu, eta garai hartan emakume bat oholtzan ikustea «arraroa» zela adierazi du. «Ez nuen ulertzen, eta sexista iruditzen zitzaidan emakume bat oholtzan ikustean seinalatzea». Oso iraingarria zen halakoak bizitzea, hausnartzeko gaia da. «Aldiz, kontzientzia hartzen zoazenen heinean, konturatu zara benetako egoera zein den eta pertsona guztiak ez dutela aukera bera».

Gazteek orain arte egindako lanari jarraipena emango diote, eta prest daude «lekukoa» hartzeko. Indartsu datoz belaunaldi berriak, nahiz eta jakin musikaz bizitzea oso zaila dela. Guztiak argi dute musikaz bizitzea zaila bada ere, emakume izanik are

zailagoa dela. Profesionalizazioarekin eta eskatu beharko lituzketen baldintzekin lotura duten ideiak dituztela uste du Furryakek. Hori gutxi ez, eta amatasunaren gaiak emakumeen ibilbidea «asko baldintzatu» dezake. Hernando, nahiz eta ama ez izan, argi du ama izateak halabarrez gutxienez urtebetez eszenatokietatik kanpo utziko lukeela. «Musika oso lan fisikoa da. Amatasunak eragiten duen egoera fisikoaz gain, emakumezko erorketa emozionalak eta gure mina ditugu», nabarmendu du.

Teknikari postuetako loraldia

Emakumeek oholtzara igotzeko dituzten zailtasunetatik haratago, sektorea bera oso maskulinizatuta dago.

4 PSIKOLOGIA ETA HEZKUNTZA
ALDAKETA Psikogunea

Olatz Elizondo Cuñado - PSIKOPEDAGOGOA
Maite Elizondo Cuñado - PSIKOLOGOA

• HAURRAK • NERABEAK/HELDUAK • BIKOTEAK •

Luis Mariano 4 - 1. B - 20302 IRUN - 943 63 15 72 / 664 42 24 40

KALIMA
arropa eta osagarriak

@kalima_errenteria

Biteri, 25, Errenteria-Orereta. Tel.: 943510372

Oholtza gainean geroz eta emakume gehiago igotzen ari diren bezala, teknikari lanak egiteko hainbat emakumek horren aldeko hautua egin dute azken urteotan. Gutxi badira ere, batzuk badira Euskal Herrian. Tokia egiten ari dira apurka.

«Oholtzak gureganatzeko egiten dugun lanak erretzen gaitu»

OIHANE BENGOETXEA

THE IIINGLES TALDEKO KIDEA

«Emakumeak badaude, baina atzetik hariak mugitzen dituztenak gizonetzkoak izan ohi dira», uste du Furryak. Argietan gero eta gehiago daude, lauzpabost-edo badaudela gehitu du Hernandok. «Gazte gehiago ari dira sektorean murgiltzen, eta horrek asko

pozten nau», esan du Hernandok. Horien agenda oso beteta dagoenez, zaila da haiekin elkarlanak lortzea.

The Iingles taldekoek sortutako diskoa argitaratzean argi izan zuten estudioko lana emakume batek egin behar zuela. «Ez dugu tarterik topatu haiekin grabatzeko». Orokorrean, teknikoen arloan gizonen eta emakumeen aldea «izugarria» dela dio Furryak. «Ez diete behar duten lekua ematen emakumeei», gehitu du.

Musikaren arloan diharduten emakumeak oztopo lasterketa batean murgilduta daude. Oztopoei aurre egin behar izateak nekea eragiten du askotan. Nekearen ondorio garbiena erretiroa da emakume askorentzat. Hernandoren kasuan, laster erretiroa hartuko duelaren susmoa du. Urte asko daramatza proiektu batetik bestera atsedean hartu gabe. Liher taldea utzi, eta atsedetik hartu gabe Bele proiektuan murgildu zen duela urte batzuk. «Orain disko berriaren aurkezpen bira bete-betean nago, baina nik uste dut

birra bukatzean atsedean hartzeko unea izango dudala».

«Oholtzak gureganatzeko egiten dugun lanak erretzen gaitu», adierazi du Bengoetxeak. Euskal Herrian musikaz bizi ahal izateko pribilegioa izan duten gehienak gizonetzkoak izaten jarraituko

«Une oro ari gure lana epaitzen eta egindakoa zalantzan jartzen»

MAIDER PELUAGA

THE IIINGLES TALDEKO KIDEA

dute haren aburuz. «Esku batez Euskal Herriko artista handienak kontatzeko esango balidate lau gizon eta emakume bat izango lirateke», gehitu du Hernandok. Teknikari postuek ere emakumeen loraldia behar dute, eta bertan ere haizak landatzen utzi behar diete. ■

Tkknika
Euskadiko LHren Ikerketa Aplikatuko Zentroa
Centro de Investigación Aplicada de FP Euskadi
Basque VET Applied Research Centre

**Tkknikan ere,
EMAKUMEAK
GORA!**

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO Fp
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN EUSKADI LANBIDE HEZIKETA



Urmendi aurrera, 0-3 bizirik!

- Izugarriya pasa da Oiartzunen! Hezkuntza Sailak di-rua kendu omen yo Urmendiri ta uain seitzeko komeyak.

- *Enazula san! Hainbeste urtin burun, ze pasatu da ba? Jendia arront kontent zon-ta, gustua ematen zun umiak han jostatzen o kalia barrena ikustia. Gurasuk e konforme umiak han utzita, nola etzin ba gustoa eongo. Nola da posible?*

- Aittua dut jendia eztola bate konforme ta ayuntamien-tuk e eskatu dula uztia haurreskolai be lanian seitzen. Go-bienuak betzako nahi omen du Oyartzunek indakua be modura itteko ta komei. Miramentu gutxi!

- *Lengun plazan ikusi nittun, kuadrilla haundi bat, dene-tik zon: zarrak, gaztik, langillik, gurasuk be ume ta guzti, ta bestelako jendia re bai. Jende erruz zon, haik izango zin.*

- Haik zin, Urmendi, Beti Herri, 0-3 Bizirik! izeneko tal-dia in dute. Nahiko saltsa bada bazterretan.

- *Eozinek enteintzen du... lanian ongi ai zinak pakian utzi berrin, zapla! Hau mundu alrrebesa! Aittu berko dute ba berriz e: Oiartzun pareta zarrak erantzun!*

Kezka dabil, bolo-bolo, Oiartzungo plazan, eta, baita ere, hezkuntzak herri eraikuntzan duen funtsezko zereginetan sinestuta gaudenon artean.

Urmendi Udal Ikastola Partzuergoa 1999an sortu zuten Oiartzungo Udalaren eta Haurtzaro Ikastolaren artean. Bat egin zuten Oiartzunen zerbitzua ematen zuten Itur-buru Udal Haur Eskolak, Haurtzaro ikastolak, eta Koikile eta Tipi-Tapa haur-eskola pribatuek. Bat-egite horrek, ordea, bazuen aurrekaria. Izan ere, Oiartzungo Udalak 1994ko maiatzean egin zuen Udal Osoko Batzarraldian, Udal Eskola Publikoari buruz honokoa onartu zuen: «Elizalde ikastetxeak eta Haurtzaro Ikastolak, azken urtetan Udal Eskola Batzordean bertan behin eta berriz azaldu dute, Udal Eskola Publikoa eratzeke nahia. Proposamena 1994ko maiatzaren 3an ospatutako Hazienda, Kontuen Berezia eta Beste Gaietan Batzordean aztertua izan zen oniritzia jaso zuelarik».

Segidan: «Euskal Eskola Publikoaren Legeak, bere be-deratzigarren erabaki gehigarrian dio: ‘Udal-erakundeon jabetzapeko herri-ikastetxeen sortzea, erakundeon eta hezkuntza administrazioaren arteko hitzarmen bidez egingo da, sortze hori Euskal Herriko irakaskuntzaren programazio orokorrarekin ados egon dadin».

Eta bukatzeko: «Hori dela eta, Udal Gorporazioak ja-rraiango erabakia hartzen du ahobatez: Oiartzunen Udal Eskola Publikoa sortzeko, Eusko Jaurlaritzarekin adosta-



**ARANTXA URBE
IRAZUSTA**
ORERETA

sun batera iritsi beharko denez bertako Hezkuntza Sai-larekin udalak bere garaian hitzarmen bat izenpe dezan, horretarako aurretik egin behar diren gestioak burutzeko alkateari eskatzea».

Bi urte iraun zituen Oiartzunen 0-18 urte arteko haur eta gazte oiartzuarrei heziketa ibilbide osoa, Lanbide He-ziketa barne, udal publikotasuna izango zuen eskola baka-rrean eskaintzeko ametsak. Hainbat lanketa abiatu ziren herrian Siadeco Ikerketa Elkartek egindako azterketa oinarri hartuta. Eztabaida ugari eta zail askoren ondoren etorri zen amaiera: alkatea ez zen sekula iritsi Hezkun-tza Sailari udalbatzak oiartzuarren izenean eman zion mandatu betetzera. Izan ere, Elizaldeko gurasoek ezezko botoa eman zioten «doako eta kalitatezko hezkuntzaren eskubidea batik bat arriskuan jartzen duen Udal Eskolaren proiektuari».

Porrot hartako errautsetatik sortu zen Urmendi, azken 40 urteetan Euskal Herrian garatu den proiektu pedago-giko interesgarrietako bat, udalaren babespean aitzin-daria izan dena erakunde publiko eta eragileen arteko elkarlanean, Italian, Finlandian eta Europako hainbeste herrialdetan hain ohikoa dena, bestalde.

Hezkuntza Sailak hankaz gora jar dezake Oiartzungo 0-3 urteko etapa, oiartzuar txikienak hainbeste mimos eta profesionaltasunez bere hazieran eta heziketan zain-tzen dituen Urmendi Haur Eskola. Galduko dugu kulturar-tekotasuna zainduz euskaraz, oiartzuarrez, herriko ohitu-rak integratu dituen jardun pedagogikoa; talde egonkorra osatzen duten langileak; tokikoa izanik, uneko beharrak identifikatzeko erraztasun eta ahalmena dakartzan tokiko kudeaketa; udalak bermatutako kontratazio zuzena; toki-ko lehengaiekin egindako bertako sukualdea; eta publiko-tasun herrikoiei eredu berri bat eraikitzeke lehen hazia.

Txarrenari onena atera behar: herri bat bere hezkuntza ereduaren alde borrokan: Urmendi bizirik! ■



ERLAUNTZA

Naturaren metaforetako bat. Erleek komunitatea eraikitzen, babesten, elikatzen, zaintzen, laguntzen, defendatzen, antolatzen, ekoizten eta sostengatzen dute. Jarraitutasunerako lan egiten dute. Ez dute elkar suntsitzeko lehiatzen, baizik eta komunitatea aurrera ateratzeko lankidetzan aritzen dira. Sarean lan egin, bere burua antolatu eta berea dena babesten du. Erleek ez dute hegan egiteko eta leku bat okupatzeko baimenik eskatzen. Sortu dezagun gure erlauntza.

KAREN MUÑOZ ETXEBESTE

OIARTZUN





Berdintasun Mahaia bere bidean jarraitzen du

Iaz aurkeztu zuten Berdintasun Mahaia. Azken asteetan, udal talde batzuek egindako salaketak direla eta, Berdintasun Mahaia izatera irekia zalantzan jarri da.

URKO IRIDOY ALZELAI

Abotsanitzek eta EH Bilduk udal gobernua sortu zuten momentuan, adierazi zuten berdintasunak bere tokia eduki behar zuela Hondarribiko Udalean. Horregatik, Berdintasun saila sortzeko eta Berdintasun teknikaria kontratatzeko prozedurekin hasi ziren 2023 hartan. Orduan, Gipuzkoan soilik bi herrik ez zuten Berdintasun teknikariaren figura: Hondarribiak eta Lasarte-Oriak. Baina kontratazioa ez zen erraza izan, hori egiteko lehenengo plaza sortu egin behar zelako. Azkenean, 2024. urtean, udaberrian, Hondarribiak bere lehenengo Berdintasun teknikaria aurkeztu zuen.

Berdintasuna oinarri izanik lan egiteko konpromisoa erakutsi du udal gobernua azken urteetan, eta horretarako, esan izan ohi dute, Berdintasun Plana beharrezkoa dela Hondarribian. Plana oraindik ez da errealitatea, baina azken txanpan sartu dira. Baina Plana gain, badira Hondarribiko Berdintasun sailaren inguruan badabiltzan beste aferak. Haietako bat Berdintasun

Mahaia izan da. Azken hilabeteetan, herriko eragile batzuek egindako kritikak sustatuta, polemikak inguratu du mahaia. Baina, zer da Hondarribiko Berdintasun Mahaia?

«Berdintasun Mahaia partaidetza espazio bat da. Bertan, berdintasunaren aldeko agenteek udalarekin izan dezaketen interlokuzioan eragitea bilatzen da. Informaziorako, aholkurako, proposamenerako eta eztabaidarako espazio bat da», azaldu du Sara del Rio Hondarribiko Berdintasun teknikariak. Mahaia hainbat elkartek eta pertsonen osatzen dute. «Mahaia hastapenak 2024ean izan ziren. Urte hartan, bertaratzeko gonbita luzatu ziguten, eta apirilaren 10ean egin zen lehen bilera», azaldu du Tzane Carrillo Emeki elkarreko kideak.

Maria Jesus Berrotaran Emekiko kideak azaldu duenez, hasieran izatera anitzeko elkarteak bildu ziren bertan, kirol taldeak, kultur elkarteak eta musika taldeak, besteak beste. «Gutxinaka forma hartzen joan den espazioa izan da. Hasieran bilkura modukoa zen, eta

orain mahai forma hartu du». Mahaian ez dago ordezkari politikorik. Udaleko langile bakarra dago bertan, teknikaria, eta besteak emakumeen eskubideen eta berdintasunaren alde borrokatzen duten eragileak edo pertsonak dira.

Bete beharrekoak

2025eko apirilaren 19an Berdintasun Mahaia hamar puntuko dekalogo edo oinarrien dokumentu bat sinatu zuen. Agirian ikus daiteke nola Berdintasun Mahaia adierazten duen hamar printzipio horien alde lan egiteko helburua duela, eta Berdintasun Mahaiko edozein partaidek onartu beharreko puntuak direla. Horrez gain, taldearen funtzionamendua, parte hartzea eta landu beharreko edukiak jorratzen dituzten puntuak agertzen dira. «Hamar printzipio horietan hainbat gauza jorratzen dira. Adibidez, jartzen du Berdintasun Legea Hondarribian ezartzeko aldekoak garelako, era guztietako indarkeria matxistak identifikatzeko, jendaurrean salatze eta biktimak babesteko egitasmoak bultzatuko ditugula, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta bereizkeriak identifikatu eta ezabatzeko egitasmoak sustatuko ditugula, eta Hondarribiko Alardea parrakidearen alde egingo dugula, besteak beste», adierazi du Carrillok.

Berdintasun Mahaia ez dauka erabakitze ahalmenik. Berdintasun sailan dauden zinegotzi eta teknikariak kudeatzen dituzte Hondarribiko Udalak berdintasunaren aferan hartzen dituen erabakiak, baina mahaia proposamen eta iritziz espazio bat izanik,

Donostia-Baiona-Donostia martxa zikloturista parte hartu nahi duzu?

2 dortsal zozkatuko ditugu!

Sariak:

- HITZA kideen artean dortsal bat
- Parte hartzaile guztien artean dortsal bat

Epea: Martxoaren 10era arte.



oarsoldea.hitza.eus/donostia-baiona-donostia-2026/
bidaso.hitza.eus/donostia-baiona-donostia-2026/



bien arteko zubia egiten du Berdintasun teknikariak. «Guk zerbait proposatzen badugu eta udalak ongi ikusten badu, haien ardura izango da horren kudeaketa eta finantzazioa», azaldu du Garciak.

Mahaiak saio monografikoak egiteko aukera badu, eta azken urteetan, Alardearen inguruan horrela egin dute. «Iazko Alardeaz hitz egiteko, aurten saio bat egin genuen, alkatearekin. Berak, baina, udal talde guztiak gonbidatzeko eskaera egin zigun eta horrela egin genuen. Otsaila hasieran izan zen bilera hori, Abotsanitz, EAJ eta EH Bilduko kideekin, PSE-EEK bertaratzeari uko egin baitzion», azaldu du Garciak. Bilera horren ostean, EAJk eta PSE-EEK, hainbat salaketa egin zituzten Berdintasun Mahaiaren harira.

«Zatitzen duen espazioa»

EAJk adierazi zuen, «atsekabetuta» sentitu zirela bilera horren harira. Jeltzaleek eskatu zuten Berdintasun Mahaiaren lana «batasunetik eta akordiotik aurrera egiteko aukera ematen duten esparruetara bideratzea», arreta jarritz emakumeen autonomia ekonomikoan, zaintza sisteman eta berdintasunean oinarritutako hezkuntzan, besteak beste. «Berdintasuna batzen duen espazioa izan behar da, ez zatitzen duena», adierazi zuen EAJk ohar bidez. Horrez gain, iragarri zuen ez zuela Alardearen inguruko iritzirik eman. «Berdintasuna ezin da bazterketa ideologikotik eraiki, eta kezka agertzen dugu Alardea modu jakin batean ospatzeko duten hautu libre eta zilegiaga-



Berdintasun Mahaiko kide batzuk. Imanol Saiz Gomez de Segura

rik ehunka emakume kanpoan uzten direlako», aldarrikatu zuten jeltzaleek otsaila hasieran.

PSE-EEK, aldiz, salatu du Berdintasun Mahaiak Hondarribiko hainbat emakume elkarte baztertuzen dituela, «bazterkeria ideologiko» baten bidez. Mahaiaren printzipioetako f puntua kentzea eskatu zuten, Alardea parekidea izatearen ingurukoa alegia, talde sozialistaren ustez «mahaiaren iritzia eta helburua aurrez ezartzen» dituelako, «eta, horrela, ehunka emakumek

bertan parte hartzeko izan dezaketean aukera bertan behera uzten» delako.

Mahaiako kideek, aldiz, argi dute mahaia espazio irekia dela. «Espazio zabala da, eta noski, irekia. Berdintasunarekiko eta feminismoarekiko konpromiso bat eskatzen dugu, eta gure ustez, hori bera betetzeko, ezarritako printzipioak bete behar dira». Berrotaranez argi du aurrera pauso «handia» izan dela Hondarribian Berdintasun teknikaria edukitzea eta Berdintasun Mahaia sortzea. ■

www.oarsoak.com

Beerlagun

UGALDETXXO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN
TEL. 943 49 01 62. oarsoak@oarsoak.com

943 25 91 79
electricidadoarso@gmail.com
kblelektrizitatea.eus

MARTXOAK 8. HONDARRIBIA

TAMARA CUELLAR MEZA TXOTXONGIOLARIA

Emakumeen ahalduntzea landuko dute Martxoaren 8aren barruan Irungo Emakumeen Etxean. Artista nikaraguarrak emakumeei zuzendutako txotxongilo tailerra antolatu du.

GORKA CORREYERO LLAMAS



Gorka Correyero Llamas

Emakumearen Egunaren barruan, Tamara Cuellar Ostomila antzerki taldeko zuzendariak, emakumeen ahalduntzea lantzeko txotxongiloen tailerra gidatuko du Irungo Emakumeen Etxean. Asteartean lehenengo saioa egin zuten, eta bertan zortzi emakume izan ziren.

Nolako izango da emakumeei zuzendutako genero ahalduntze txotxongilo tailerra?

Txotxongiloen tailerra norbanakoen istorioetatik kolektiborako lanketa egiteko bidea da. Urte asko daramat txotxongiloen sektorean murgilduta, eta azken zortzi urteak Irunen eman ditut lanean. Nikaraguan leku batek bestera ibili naiz txotxongiloekin gora eta behera. Kasu honetan, Irungo Emakumeen Etxeak aukera eman dit emakumeen ahalduntze tailerra garatzeko. Tailer honek oinarri ugari ditu; hala nola, besteekin komunikatzea,

« Nire asmoa da txotxongiloak barrenak askatzeko bidea izatea »

zure iritzia ematea, eta zure istorioa idaztea. Txotxongiloen bidez gorputz adierazpena landu ahalko dute emakumeek datozen hilabeteetan egingo ditugun tailerretan.

Zein izango da tailerraren funtzio-namendua?

Nire lana emakumeak laguntzea izango da, bakoitzari bere txotxongiloak sortzeko tresnak eta aholkuak emango dizkiet. Txotxongilo horiek nola landu,

nola idatzi euren istorioak eta zer mezu helarazi nahi duten jakiten lagunduko diet. Bakoitzaren bizipenen bidez istorio kolektiboa landuko dugu, emakumeon esperientziak oinarri. Bakoitzaren istorioa gidoi bilakatuko dugu, eta hura txotxongiloen ikuskizun batean plazaratzeko asmoa dut.

Tailer honek zein helburu izango ditu?

Azken batean, honen bitartez emakumeek oinarrizko tresnak garbi izan

24 korrika
Euskara gara

Ikusi eta deskargatu

ZURE KILOMETROA



www.hamaika.eus/24korrika

Egin zure kilometroaren bideoaren eskaera eta bideoa jasoko duzu prest dagoenean

Jarraitu
24 orduz
ZUZENEAN
Hamaikan



hamaika

ditzaten bilatzen dut. Nire asmoa da txotxongiloak gure barneak askatzeko bidea izatea. Metafora bat da. Objektuekin, materialekin eta pertsonaiekin hitz egitea; azkenean, nik maneiatzen dut txotxongiloa, eta badakit zer egin harekin nahi dudana helarazteko.

Aurtengoa tailer horren lehenengo ekitaldia da, ezta? Egin al duzu aurretik halako zerbait?

Lehenengo urtea izango da, bai. Irunen bizi naiz, eta urte luzeetan sektorean egindako lana helarazi nahi diet emakumei. Nikaraguan umeekin, gazteekin eta adinekoekin lan egin dut urte luzez, baina emakumei espresuki eskaintako lehenengo tailerra izango da. Euskal Herrian ez dut halakorik ikusi.

Gaia landu dut, eta ez dut emakumeekin lan egiten duten txotxongiloen tailerrik topatu; txotxongiloen sektorea hazkunde prozesuan murgilduta dago, eta horregatik izan daiteke. Nikaraguan adingabeen kontrako indarkeria eta adingabeen ahalduntzea landu ditut. Txotxongiloen bidez haurrak gai dira gurasoei edo helduei oro har jasandakoa helarazteko.

Nola bururatu zitzaizun tailer hau antolatzekeo ideia?

Ostomila antzerki taldeko kide naiz, eta edozein motatako proiektuak lantzeko atea irekita dugu. Bezeroek eskatzen digutena landu izan dugu, eta Zumalakarregiren buruhandi bat egitera ere heldu gara [barrez]. Nikaraguan askotariko txotxongiloak egin izan ditut, imajinaezinak horietako asko. Irungo Emakumeen Etxeak tailerra egiteko ideia proposatu zigun, eta guk

aurrera egin genuen. Lehenengo saioa asteartekoa izan zen.

Tailerretako taldeetan zenbat emakumek parte hartuko dute?

Guztira, hamabost plaza eskaini ditugu. Parte hartzaileak hiru taldetan banatuko ditugu, funtzionamendua azkarragoa eta eraginkorragoa izan dadin. Hortaz, bost emakumeko hiru talde egingo ditugu eta saio bakoitzak

« Tailerra norbanakoen istorioetatik kolektiborako lanketa egiteko bidea da »

bi ordu eta erdiko iraupena izango du. Saio bakoitzak dinamika ezberdina izango du, ez baitakigu emakumeek nola egingo duten lan.

Materiala zuk ekarritakoa izango da, edo emakume bakoitzak etxetik ekarri beharko du?

Hainbat material erabiliko ditugu tailerretan. Belakiak, ehunak, papera, edo kartoia erabiliko ditugu, nik ekarritakoak noski. Papera erabiltzea gustuko dut, eta ahalik eta material garbiena erabiltzen saiatuko naiz. Nikaraguan, aldiz, bestelako materialak erabiltzen


ditut, naturalagoak. Euskal Herrian ez dira material horiek existitzen, eta beste batzuk erabiliko ditugu. Txotxongiloak erraz egiteko osagaiak aukeratu ditut. Lehenengo saioetan, behintzat, hala egingo dut. Emakume gehienek eskularru txotxongiloak gustuko badituzte, horiek egingo ditugu.

Zer aurreikuspen dituzu?

Ilusio handia dut tailerrekin hasteko. Hona iritsi nintzenez pena handia sentitu nuen. Nikaraguan gazteekin lan egiten nuen, lan zaila benetan, baina talde polita osatu genuen eta oso giro ona genuen. Tailer hura bukatu nuenetik ez dut halako tailerrik antolatu. Bizitasun handikoa izan zen. Publiko baten aurrean egindako lana erakustea beti da zaila; niretzat ere zaila da, nahiz eta txotxongiloen sektorean urteak daramatzadan.

Hurrengo urteei begira, edizio gehiago egongo direla uste al duzu?

Prest nago beste urte batez tailerra errepikatzeke, baina ez dago nire esku. Esan digute eskaintako hamabost plazak gainditu direla, eta itxaron zerrenda egin dutela. Hortaz, emakumeen erantzuna izugarrikoa izango dela espero dut. Uste dut Irunen ez bada, beste herri batean aukera izango dudala emakumeen ahalduntzea berriro lantzeko. ■





EGUZKITZA HLHI
PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA BERRIZTATZAILEA ETA INTEGRATZAILEA



baikara
KALITATEA HEZKUNTZAN

Berdintasunean hezten

Victoriano Juaristi, 1. IRUN 20304. Tel.: 943 89 91 61.
E-posta: 013372aa@hezkuntza.net • www.eguzkitza.hezkuntza.net



Adinekoentzako elkargune bat baino gehiago

Duela urtebete Arramendiperen zuzendaritza hartu zutenetik ia bikoiztu egin dute bazkide kopurua Yolanda Llorentek, Celes Vizcainok, Maria Jesus Alegrek, eta Magdalena Piñeirik.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Duela urtebete hartu zuten Pontikako Arramendipe jubilatuen elkartearen ardura Yolanda Llorentek, Celes Vizcainok eta Maria Jesus Alegrek. Idazkaria, presidentea eta diruzaina dira hurrenez hurren. Laugarren emakume bat ari da hauekin hasieratik lanean, Magdalena Piñeiro —gaixo dagoelako ez zen elkarriketan izan—. Llorente eta Piñeiro auzokoak dira; Vizcaino eta Alegre ez, baina bertara joaten ziren aurretik gimnasia egitera. Pandemiarekin batera gainbehera hasi zuen erretiratuen elkarteak, taberna itxi behar izan zuten, eta horrekin batera, inoiz izan dituen 300 bazkideetik gorako asko-askok baja eman zuten, «50 izatera heldu ginen», azaldu dute hiru emakumeek. Tabernarik gabe urteetan, gutxi ziren bazkide egitera animatzen ziren 60 urtetik gorako bizi-

lagunak, hori baita bazkide izateko baldintza kuota ordaintzarekin batera, eta iaz elkartearen gaineko erabaki bat hartzeko batzarra egin zuten auzoan.

«Inor ez zegoen prest hartzeko, eta gu animatu egin ginen», esan du Vizcainok, «une hartan ez genekien zertan sartzen ari ginen, baina elkarte berpiztu eta aurrera ateratzeko gogoak batu gintuen». Urtebete geroago, taberna martxan jarri berria du Arramendipek, eta bazkide kopurua ia bikoiztu egin dute, «87 bazkide inguru ditugu gaur egun, eta gure helburua kopuru hori bikoiztea da». Oso pozik daude, ez dute-eta lan makala egin, 20 egun iraungo zutenik zalantzan jarri zuenik ere izan zen; haiei erakutsi diete irauteaz gain, egoera iraultzeko ere gai izaten ari direla: «Pozik gaude lortzen ari garenekin eta taberna zabaldu

izanak jende gehiago gerturatzea ekarriko duen itxaropena dugu. 09:00etatik 21:00etara dago zabalik taberna eta hamar egunean aldaketa handia ikusten ari gara».

Hunkitu egin da Llorente, bera aurretik ere aritua zelako elkarteetan, eta azken lau urteetan jo eta su aritu delako Arramendipe elkarteak ateak itxi ez zitzaizkan, «laguntza handia eman didate biek, eta bide onetik goaz».

Elkargune bat baino gehiago

Ez da ohikoa, tamalez, emakumeak aritzea zuzendaritzetan elkarteetan, eta Arramendiperen kasuan lau emakume ari dira egoitzaren kudeaketan. Elkargune bat da erretiratuen elkarte, baino hortik harago doala jarri dute nabarmen hiru emakumeek. «Nahiko genuke bakarrik dagoen edo sentitzen den jende horrengana guztiarengana heldu eta elkartera gerturatzea. Finean, hemen taberna dugu, jarduerak antolatzen dira, hitzaldiak ere egiten ditugu, baina batez ere sareak sortu eta elkarrekin egoteko espazioa da».

Erretiratuen elkarteak, eta hortaz baita Arramendipe ere, hautatua ez den bakardadea apurtzeko tresnatzat jo dituzte, eta betetzen duten funtzio hori aintzatetsi. «Jakin badakigu badela jendea auzoan ez dena ateratzen. Pandemiak min handia eman zuen, eta elkarteetan leku bat dago denbora partekatzeko, sozializatzeko», esan du Llorentek. Harago jo du Arramendipeko idazkariak, eta Pontika zahartzen ari den auzoa dela esan du, «jende gaztea dator, auzo atsegina, segurua eta

CIFP DON BOSCO LHII



DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA

20100 Erreenteria

Tel.: 943 510 450

donbosco@donbosco.eus

www.donbosco.eus

PAPER KALEA, 1

20400 Tolosa

Tel.: 943 672 900



**Lanbide heziketa
baino askoz gehiago**



haurrentzako oso egokia delako, baina jende heldu asko-asko gaude bertan». Adinduentzako espazio atseginen beharra defendatu du Alegrek: «Hala ere, esango nuke gaztetzeko bidea hasi duela auzoak, eta orain, Barandiaran parke berria egiten dutenean, uste dut jende gazte gehiago gerturatuko dela».

Elkartea erabiltzeko bazkide izan behar da, eta horretarako kuota ordaindu. Aurten asko murriztu dute. «30 euro balio zuen iaz, eta aurten 15 eurora jaitsi dugu bazkide kuota; ahal badugu, oraindik ere gehiago merkatu nahi dugu».

Arramendipe elkarteko bazkide egitera deitu dituzte bizilagunak, Pontikakoak, zein beste auzoetakoak, «gurea auzo alaia da, bizitza ikaragarria du, eta gu hoberenak gara». Elkartea bera indarberritzea ezinbestekoa jo dute, horretan ari dira, baina auzotarren erantzuna ezinbestekoa dute horretarako: «Aukera asko dago bertan, urte betean aurrera atera dugu, eta bazkide ez zen jende ugari gerturatu zaigu taberna berriro zabalik dagoenetik. Lanean eta borrokan ari gara hau aurrera ateratzeko».

Adinekoak etxetik ateratzeko deia

Jendea etxetik ateratzera animatu du Alegrek, «bizitza dago, eta gozatu egin behar da. Elkarteak horretarako aukera ematen du». Bazkide direnek, gainera, oparia jaso dute, elkartearen izena duen poltsa. Une honetan tabernak edatekoak eta pintxoak eskaintzen ditu, baina auzoak harrera polita egin diola esan dute: «Auzoko beste taber-



Maria Jesus Alegre, Yolanda Llorente eta Celes Vizcaino, Arramendipe kanpoaldean.

Ikerne Zarate Gartziaarena

nekin batera hasi da pintxo potea egiten asteazkenetan. Asko nabaritu da, eta jubilatuen elkartea izanik, merkeago da bertan kontsumitzea».

Erretiratuaren egoitzen garrantzia berriro nabarmen jarri du Llorentek: «Bakardadeari aurre egiten laguntzen dute. Etxean denbora asko ematen duen jendeak aterabidea izan dezan



nahi dugu, sozializatzeko aukera dutelako bertan, eta funtzio hori betetzen du gure elkarteak ere. Adinekoa izatea ez da oztopo izatearen sinonimo».

Une honetan memoria saioak, eskulanak, gimnasia eta pilates ematen dituzte elkartearen. «Gimnasia da erantzun handiena duena, baina besteetan ere erantzuna ona izaten ari da. Bingo ere bi egunetan egiten dugu, astearte eta ostegunetan». Horietan parte hartzeko 60 urtetik gorakoa izan behar da, eta bazkideguta egon. ■



EZBERDINAK
IZANIK,
PAREKIDE BIZI

Martxoak 8:
Emakumeen Nazioarteko Eguna

IKASTOLAK   
www.oreretaikastola.eus



 **orereta** ^{*}
ikastola
AURRERA!



Iazko Martxoaren 8koa da irudia, Lezoko manifestaziokoa. I. Zarate

Askoren artean sortutako mahaia, askorentzat

Martxoaren 8ko egitarauaren barruan Lezoko Berdintasun Kontseiluaren aurkezpena egingo dute hilaren 11ko arratsaldean. Herriko mugimendu feministaren eskaera historikoa zen mahaia sortzea.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Lezoko Udalak eta Lezoko Berdintasun Kontseilua osatzeko prozesuan parte hartu duten eragile eta herritarrek Martxoaren 8aren harirako egitaraua osatu, eta aurkeztu dute. Emakumeen Egunetik harago doa ekitaldien zerrenda. Jardueren artean nabarmentzekoa da jada Lezoko Berdintasun Kontseilua osatzeko bidea bukatu dela, eta hilaren 11n (osteguna) aurkeztuko dutela jendaurrean mahai hori, 18:00etan, Kultura Aretoan. Urtebeteko sortze prozesua izan du kon-

tseiluak. Labean lasai ondo dute, askoren artean.

Udalak eta herriko hainbat talde zein norbanakoren elkarlanaren emaitza izan da urte luzez herriko mugimendu feministak bere eskaeren agendan zuen mahaia eta kontseilua sortzea.

Udalak eta eragileek parte hartu dute Lezoko Berdintasun Kontseilua osatzeko bidean

Bilgunearen helburuak: berdintasunaren alde apustu egiten duten pertsonen eta eragile sozialen sarea sortzea; emakumeen parte hartzea sustatzea; eta emakumeen parte hartze sozial eta politikoaren defizitari aurre egitea eta euren herritartasun aktiboa indartzea, talde feministen eta emakume taldeen lanaren aitortza egiteko. Kontseiluaren lanaren emaitza izan dira Martxoaren 8aren harira antolatutako ekitaldi eta ekintzak, «hausnarketa, aldarrikapena eta elkartasuna bultzatzeko» dira jarduera horiek, udalaren arabera.

Eneritz Arruti Lezoko Udaleko Berdintasun zinegotziaren arabera, urtebeteko sortze prozesua mamitsua izan da, herriko emakumeen eta eragileen arteko saretze lana eskatu duelako. «Koordinazioa egin behar izan da, emakumeen eta eragileen artekoa. Lanerako oinarriak ezarri dira. Bazegoen lana, eta uste dut poliki baina ondo egin den

LEZO AGENDA Kulturala



ANTZERKIA

6 **MARTXOAK 6,** ostirala, 17:15ean. Gezala Auditoriuma.

TXEPELDUNAK

Haur-antzerkia. Lanku. Sarrera 3 €. Euskaraz

BERTSOA

8 **ESNE BERRIKETAN**

Bertso-saio literarioa

UXUE ALBERDI AMORANTE

MARTXOAK 8, igandea, 19:30ean. Gezala Auditoriuma.

ESNE-BERRIKETAN

Bertso-saio literario musikatua: Uxue Alberdi, Nerea Ibarzabal, Miren Amuriza eta Amorante. Sarrera 8 €. Euskaraz

- Haur eta helduentzako Terapia Estrategiko Laburra
- Banakako, bikote, eta familia terapia

JAKOBE PSIKOTERAPIA
620.12.24.29

Jakobe Batanero Álvarez
Psikologoa GZ1579
Xenpelar kalea 6. solairuartea,
5. bulegoa. Errenteria
www.jakobepsikoterapia.com

lan bat egin dela. Oinarri sendoak jarri ditugu. Berdintasunerako, emakumeen ahalduntzerako eta aldarrikapenerako baliabideak jada baditugu mahaiaren gainean», esan du.

Prozesua hasiera batean udalaren eta herriko eragileen ekimenez abiatu zen. Ondorenera Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin bideratu zen prozesua, eta horrek lanketa erraztu zuela adierazi du Arrutik. «Kontseiluak herrira begira egingo du lan. Baina udalarekin komunikazioa izango du, Berdintasun Plana duelako udalak adibidez, eta hori aurrera eramateko jarraipena egingo du. Mahaitik ere proposamenak egingo zaizkio udalari, eta horien egikaritzea nola doan gainbegiratu du».

Oinarri zehatzak

Lezoko Berdintasun Kontseilua urtean ohiko deialdien bidez lautan-edo bilduko dela jakinarazi du Berdintasun zinegotziak; ezohiko bilkurak ere egin ditzake sor daitezkeen egoerek hala eskatzen badute. Edonola ere, gaur arte

iristeko prozesuari balioa eman dio Arrutik, «adostasun maila handia izan da. Asko hitz egin dugu, gogoetarako eremu ere izan da prozesua».

Araudi eta funtzionamendurako oinarri zehatzak ditu kontseiluak. Horren arabera, herrian berdintasun politika

Ahalik eta ahots gehien nahi dituzte kontseiluan, espazio zabal eta eraginkorra izatea nahi dute

koordinatu eta planifikatuak egiteko espazioa sortu dute. Gainera, emakumeen ahalduntzea eta protagonismoa sustatzeko baliagarri izango diren jarduera eta ekintzak proposatuko dira mahaiaren bidez, emakumeak eta eragileak sartzeko. «Egun seinalatuen gaineko lanketa bereziak ere egingo dira, Martxoaren 8ari begirakoak adibidez.

Baina harago joango da kontseiluaren egitekoa, hala izan behar du».

Arrutik behetik gorako prozesua izan dela azaldu du. Herritarren bilgune batetik abiatu delako prozesua osoa, haien hitza eta iritzia jasoa izan delako herriak hutsuneen artean zuen mahaia osatzeko. «Udala eta elkarte nahiz pertsona ezberdinak elkarlanean aritzea oso aberasgarria izan da prozesuan, eta hala izango da kontseiluan ere bai. Egun ditugun tresnak baino eraginkorragoak izango dira kontseilutik aterako diren ideia, proposamen eta lanketak».

Irekia da kontseiluaren parte izatea. Lezoar orori zabalik da. Horri atxikitze eskaera orri bat bete behar dute hala nahi dutenek. Espazio zabala dela hila-ren 11n egingo den aurkezpenean adieraziko dute, askoren artean egindakoa dela, askorentzat. Gainera, kontseilua sortzeko zereginetan izan direnek gonbita egin diete herritarrei Martxoaren 8aren harira antolatutakoetan parte hartzeko. ■

AIZPEA

OSTATUA

GURUTZE SANTUAREN PLAZA, 6
LEZO.

OGITARTEKOAK:
tortilla, urdaizpikoa

PINTXOAK:
Hotzak eta beroak

EGUNEKO
MENUAK

otsailaren 26tik
martxoaren 18ra
errigora.eus

ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA



Eskatu: Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arrosa, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan



Martzelina Lopetegi Olaiz lehen lerroan jartzeko

2022an hartu zuen Oiarzungo Bertso Eskolak Martzelina Bertsozale Elkartea izena, Martzelina Lopetegi Olaizen omenez. Elkartearen jarduna izan du hizpide Karmele Mitxelena Etxebestek.

LEIRE PERLINES APALATEGI

Euskal kulturaren zati esanguratsuetako bat da bertsoaritzza. Hala izan da historikoki, eta hala izaten jarraitzen du gaur egun ere. Ikusi besterik ez da eskualdetako zein Euskal Herriko txapelketak mugitzen duten jende andana. Herriarteko txapelketak ere martxan dira aurten, eta Gipuzkoaren kasuan 57 taldek abiatu zuten lehiaketa. Ezin esan, beraz, bertsoa hilda dagoenik.

Oholtzetan edota plazetan denetarik ikusten da; bertsolari gazte zein helduak, eta baita emakumeak zein gizoneak ere. Normaltzat dugu gaur-gaurkoz emakumeak bertsoan ikustea, baita txapelak janzten ikustea ere, baina hori ez da beti horrela izan, eta duela zenbait hamarkada borroka egindako emakume bertsolarietara eskertu beharreko zerbait da hori.

Martzelina Lopetegi Olaiz da horren adibide. 1864an jaio zen bertsolaria Ergoingo Galtzadeta baserrian, eta 1930ean hil zen, bronkopneumonia baten ondorioz. Ezer gutxi daki herriak haren inguruan, baina Martzelina

Bertsozale Elkartea horri aurre egiteko jaio da.

Karmele Mitxelena Etxebeste Martzelina Bertsozale Elkarteko kide da, eta hark eman du taldearen berri. Duela lau urte arte Oiarzungo Bertso Eskola zuen izen herriko bertsozaleen bilguneak, baina Mitxelenak kontatu du gaur egun diru laguntzak eskatzeko edota ekitaldiak antolatzeke «asko errazagoa» dela elkarre bat eratuta izatea. Alegia, Martzelina Bertsozale Elkartea «behar batetik» sortu zen.

Elkartea eraterakoan zenbait izen izan zituzten mahai gainean; denak ez ziren pertsona izenak, baina hor tartean zegoen Martzelinarena. «Bazegoen hor nonbait Martzelina, baina inork ez zekien zein zen. Izena entzuna genuen, baina bere bizitzaren inguruan ezer gutxi genekien, eta aitortza moduko bat iruditu zitzaigun gure elkarteari Martzelina Bertsozale Elkartea izena hartzea. Gainera, izenak berak 'nor da Martzelina?' galdera sortzen du». Bide horretan, nabarmendu du taldearen lana izan dela Martzelinaren




izena zabaltzea. Are, ez da ahaztu behar 2023an *Martzelina Lopetegi Olaiz*. Edo. liburua plazaratu zutela bertsolaria bera ardatz izanik.

Martzelinaren izena zabaltu nahian

Alabaina, liburua ez da Lopetegiren izena eta izana zabaltzeko burutu duten ekintza bakarra, *Libertadia hartuta* aspaldian nago esaldiarekin tote poltsak egin baitzituzten. Hori Lopetegik Txirritari erantzundako bertso baten amaiera da [hurrengo orrian ikus daiteke], eta «amaiera esanguratsu» horrekin zerbait egin nahi zuten bertsozale elkarteko kideek. «Garai horretan emakume batek plaza batean hori kantatzea gauza handia da».

Hasieran Lopetegiren inguruan bi paragrafo adina baino ez zekiten, eta Joxemari Mitxelenaren laguntzarekin elizako paperak lortu, eta jakin zuten, besteak beste, bi haur izan zituela, nahiz eta biak hura bizi zela hil egin ziren.

Mitxelenak, hortaz, argi utzi nahi





Martzelina Lopetegi Olaiz bertsolariaren ilustrazioa.

Txakur Gorria

izan du «ahalegin bat» egin dutela Lopetegiren izena zabaltzen, baina sinistuta dagoela ereindako haziak eman dituela bere fruituak. «Esfortzu bat egin dugu, eta herrian jendeak entzun du Martzelinaren inguruan hitz egiten, eta, beraz, jakin du nor zen».

Gaur egun zortzi kidek osatzen dute

Martzelinak Txirritari botatakoak

Txirritak:

*Aditu bihaituzu
nere abisuak
hoiek izango dira
gauza prezisuak
jakinaren gainian
jarri gurasuak
bestela ez du balio
nere desiuak.*

Martzelinak erantzun:

*Aitakin eta amakin
konpontzen naiz ondo
haitaz eskusarikan
jartzetik ez dago;
jakinaren gainian
dirade lenago
libertadia hartua
aspaldian nago.*

bertsolaritza taldea, eta gehienak emakumeak dira. Hortaz, nahi gabe ere, ezinbestean, ikuspegi feminista lan-tzen dute. «Esaterako, saio bat antolatze-ko orduan lau bertsolari ariko badi-ra, bi emakume eta bi gizon izango dira derrigor. Gainera, saioak bideratzeko edota diseinatzeko orduan nahi gabe bada ere gure eskua ikusten da, ez bai-ta berdina gai jartzaille bat emakume edota gizona izatea».

Iragan asteburuan *Hezur Berriak* ber-tso saio literarioa egin behar zuten, bai-na apirilaren 11ra atzeratu behar izan

dute egoerak hala bultzatuta. Amata-sunarekin lotutako hitzordua da, eta Miren Amuriza Plaza, Oihana Iguaran Barandiaran eta Alaia Martin Etxebes-te ariko dira bertsotan; musikaz Ines Osinaga arduratuko da, eta gai emaille lanak Ane Labaka Mayozerk egingo ditu.

Ildo horretatik, Mitxelenak dio ema-kumeen bertsolaritza «deskubrimendu bat» izan dela; «Orain artean erabat isilpean egon eta baloratu gabea izan da. Tira, ez dakit isilpean egon den edo ez den baloratua izan, baina uste dut azken urteetan irabazi duen zerbait badela baloratua izate hori, eta horrek ekartzen duela ulertzea eta onartzea emakumezkoen bertsolaritza ere».

Herriaz galdetuta, azken urteetan ez direla horrenbeste bertsolari ateratzen azaldu du, «baina gaztetxoak badabil-tza». Aipatu du emakumezkoak gutxia-go direla, «baina herrian Alaia Martin bat izatea erreferente oso garrantzi-tsua da ondoren datozenentzat. Gerora emaitzak ikusteko lana egin behar da, eta horregatik dugu bertso eskola».

Hori, baina, ez da Martzelina Bertso-zale Elkarteak ematen duen zerbitzu bakarra, urtean zehar zenbait ekitaldi ere antolatzen baitituzte, eta horien artean nabarmendu du Mitxelenak abuztuaren 5ean egiten duten bertso jaialdia, «ahalegin baten ondorio izan da saio hori»

Martzelina asko daude munduan oraindik, emakume izen asko dago ikertzeke, eta horixe egin nahi dute oiartzuarrek: izenak bilatu, ikertu eta jendarteratu nahi ditu Martzelina Ber-tsozale Elkarteak. ■

Gora borroka feminista!

BERTAKO SUPERMERKATUA

EROSKI city

Olalde kalea 4/5 behea.
943 26 03 45 Altzibar.
OIARTZUN

Oiartzo IKASTOLA
etorkizunerako bidelagun

MARTXOAK 8
Emakumeen
Nazioarteko Eguna

Ezberdinak izanik, parekide bizi

IKASTOLAK
www.oiartzoikastola.eus

Finiren Txokoa, Fini Rubiok Pasaiari utzitako legatua

Pasaiako Udalak Finiren Txokoa eguneko zentroa ireki du Antxon. Gunea Fini Rubio zenaren herentziari esker egin ahal izan da. Begoña Garmendiak Rubioren bizitzaren erradiografia egin du.

MIKEL DEL VAL GARCIA

Pasaiako Udalak Gizarte Ekintzako baliabide berri bat ireki du Antxoko Eskalantegi kaleko 53. zenbakian. Gune horrek Finiren Txokoa du izena, eta egoera ahulean, hauskorrean edota mendekotasun moderatuan dauden 60 urtetik gorako pasaitarrei begirako eguneko zentro bat da. Udalaren helburua da bakardadeari eta hauskortasunari komunitatetik erantzutea. Finiren Txokoa otsailaren 10etik dago funtzionamenduan, eta hil bereko 24an egin zuten inaugurazio ofiziala udalak eta zentroko erabiltzaileek. Gune berri horri esker, Fini Rubioren izena pasaitar guztien ahotan izan da azken asteetan; baina, nor izan zen Fini Rubio?

Josefina Rubio Tio Valladoliden jaio zen, 1945ean. Begoña Garmendia Vazquez Fini Rubioren laguna izan zen, eta hura izan da herentziaren albazeetako bat. Bi emakumeak 1970eko hamarkadaren bukaeran ezagutu ziren, feminismo abertzalearen militantzian, eta oso harreman estua izan zuten. Garmendiaren hitzetan, Rubio «emaku-

me feminista, ezkertiarra, jakintsua, bitala eta zorrotza» izan zen. Bere aita 1927ko belaunaldiko estatu mailako Zuzenbide katedradun gazteena izan zen. Garai hartan ikasleen erresidentzian egon zen, Federico Garcia Lorca, Luis Buñuel edo Salvador Dalirekin batera.

«« Fini Rubio oso emakume konprometitua izan zen bere bizitza osoan»

BEGOÑA GARMENDIA

HERENTZIAREN ALBAZEA ETA LAGUNA

Garmendiak adierazi du aitarengandik jaso zuela jarduera intelektuala.

Rubiok Soziologiako eta Zientzia Politikoko ikasketak egin zituen Madril. Unibertsitatean zegoela, Frankismoaren aurkako mugimenduetan aritu zen. Beka bati esker, AEBetara joan zen, eta aukera izan zuen mugimendu

feminista ezkertiarra gertutik ezagutzeko eta bertako oinarrietan murgiltzeko. Ikasketak bukatu ondoren, Emakumeen Askapenerako Frontea eratu zuen Madril beste emakume batzuekin batera, 1975ean. Garmendiak jakinarazi du «emakumearen zapalkuntzaren eta klase zapalkuntzaren arteko harremana aztertu zutela», eta «gizarteak sozialista izan behar bazuen, ez patriarkala ere izan behar zuela». *Tribuna feminista* editorialaren sortzaileetako bat ere izan zen. Trantsizioan pentsamendu feministaren difusioan eragiteko sortu zuten espazio hori. «Emakume konprometitua izan zen bizitza osoan», esan du Garmendiak.

Madrilen Antxon Ezeiza Sansinenea zinemagile donostiarra ezagutu zuen, eta bizitza osoa eman zuten elkarrekin. Bitan erbestean izan ziren, eta 1978an Euskal Herrira itzuli ziren. Garai hartan ezker abertzaleko KAS erakunde murgildu zen. Erakunde horretan Rubiok «hutsune bat» antzeman zuela baietsi du Garmendiak. Hutsune hori eredu «ez patriarkalarena» zela jakinarazi du Rubioren kideak, eta defendatu zuen «ezker abertzaleak erakunde feminista bat izan behar zuela». Horrez gain, Garmendiak adierazi du Rubio izan zela Euskal Herrian zapalkuntza hirukoitzaren teorizazioa gauzatu zuen emakumea: «Zapalkuntza emakume, langile eta euskaldun gisa».

1979an, KASEko emakumeak, Rubio eta Garmendia tarteko, Granadan egindako jardunaldi feministetan izan ziren. Topaketa hartan, mugimendu fe-

OLHUI | IMFPB
Pasaiako
Oinarrizko Lanbide Heziketako
Udal Institutua

Sukaldaritza eta
Jatetxe-arloa

Etxebizitzen
Mantentze-Lanak
(Iturgintza - Beroa)

Gure gazteak berdintasunean hezten

INFORMAZIOA

Bidasoa kalea, 1-3, Trintxerpe. Pasaiak. • T. 943 404894
www.fpb-olh.pasaia.org • E-mail: olh-fpb@pasaia.net

PASAIKO UDALA

EUSKO JARDUNALDIA
GOBIERNO VASCO

EROSKI
city


Herriko plaza, 8.
Pasai San Pedro
Tel.: 943 39 38 12

ministaren korrante nagusienak azaleratu zirela kontatu du Garmendiak. Haien aldarrikapena argia zen: «Guk mugimendu feministaren autonomia aldarrikatzen genuen, baina aldi berean, klase borroka, emakumeen zapalkuntzaren aurkako borroka eta nazio borroka aldarrikatu genituen».

Rubio, gainera, «ikertzaile nekazaria» izan zela nabarmendu du Garmendiak. Rubiok asko idazten zuen, eta Martxoaren 8aren jatorriaren inguruko ikerketa historiko sakon bat egin zuen. Borroka sufragistarekin lotu zuen emakumeen borroka, eta Garmendiak zehaztu du Rubiok lotura egin zuela «sufragisten sektorearekin eta emakume langileekin». Irakaslea ere izan zen Euskal Herriko, Pauko eta Tolosako (Okzitania, Frantzia) unibertsitateetan.

Finí Rubioren herentzia

2011n Antxon, bere bikotea, hil zen. Ondoren, Rubio gaixotu egin zen, eta 2016an zendu zen. Garmendiak jakinarazi du Rubiok oso garbi zuela bere ondasunak «onura sozialera» bideratuko zituela. Rubio soziologoa zen, eta «bere argitasunaren» barruan hausnartzen hasi zen nora igorri bere ondasunak. Alternatiba ezberdinak aztertu ondoren, erabaki zuen ondasunak «bakardadean bizi ziren pertsoneri eta batez ere baliabide ekonomikorik ez zutenei» bideratuko zizkiela. Rubio Donostian bizi zen, eta Gipuzkoako tamaina ertaineko udalen artean errenta baxuenak zituztenak identifikatu zituen. Herriak eta errentak aztertu ondoren, Pasaia, Errenteriako, Andoaingo eta Hernaniko



Josefina Rubio Tió
(Finí)

Josefina Rubio Tio, 'Finí' (1945-2016). Pasaia Udal

udalak bere ondasun eta eskubideen zati baten jaraunsle izendatu zituen, 2015ean. Pasaia 939.066,41 euro egokitu zitzaizkion, eta dohaintza horri esker jarri da martxan Finiren Txokoa. Udalak 300 metro koadroko Eskalantegiko lokala erosi zuen 2022an, eta ekipatu egin du eguneko zentroa errealtate izateko.

Garmendiak baietsi du «alderdi humanoa» oso garrantzitsua izan zela Rubioren bizitzan, eta uste du Finí «oso pozik» egongo litzatekeela gune berriarekin: «Finí oso argi zeukan ez zuela soilik adreiluzko zerbitzu izatea nahi, berak zerbitzu bat eskaini nahi zuen. Finiren Txokoa zerbitzua es-

kaintzeko espazio bat prestatu da». Garmendiak berak onartu du «asko hunkitu» duela lekuak, Rubioren presentzia hainbat lekutan ikus baitaiteke. Udal ordezkari eta zentroko erabiltzaileekin batera izan zen Garmendia otsailaren 24ko inaugurazio ekitaldian, eta Finiren Txokoa ezagutu ondoren, hitz hunkigarri batzuekin itxi zuen bere diskurtsoa: «Finiren eta Antxonnen errauntsak jaso zituzten Larraulgo belardiak gaur loratu egin dira, zalan-tzarik gabe».

Gunea martxan da jada, eta bakardadeari eta hauskortasunari komunitatetik erantzungo diote Pasaian, Finí Rubiori esker. ■

Taxi Jaizkibel
Donibane. Antxo. San Pedro.
Trintxerpe. Lezo.
943.39.14.14

PORTUKO PILOTUAK
San Pedro kalea, 32
Pasai San Pedro
943 35 15 34
www.pasajespilot.com

PORTUKO PILOTUAK - CORPORACION PRACTICOS PASAIA

Lanean zaurgarri diren emakumeen heldulekua

Oarsoaldean 436 dira etxeko lanean eta zaintzan ari diren emakumeak. Horietatik %36k ez du lan kontraturik, eta kontratua dutenek, dagokiena baino %38 gutxiago jasotzen dute soldatan. Oarsoaldeko Etxekolan zerbitzuaren bidez horri aurre gin nahian dabilta.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Oarsolan Enplegu eta Inklusio Zentroak 2018an aktibatutako Etxekolan zerbitzua, etxeko langileek eta zaintzaileek duin lan egiteko helburuz, eta ondorioz, zaintza behar dutenek arta duina jasotzeko;



Etxekolanen berri emateko agerraldia, urtarrilaren bukaeran. U. E.

etxeko lanean eta zaintzan dabilzan pertsonen, eta langile bat kontratatu nahi duten familiei begirako doako aholkularitza eta bitartekaritza zerbitzua da finean, langileen eskubideak bermatzeko, haiei prestakuntza eta orientazioa emateko, eta familiei laguntza eskaintzeko: 1.239 langabe eta familia lagundu dituzte 2018tik. Orain, egindako bide hori guztia jaso, eta prototipoa osatu dute Oarsoaldea Garapen Agentziak (Etxekolan kudeatzen du) eta SOS Arrazakeriak.

Etxeko langileen nahiz zaintzan dabilzan pertsonen sektorea erabat feminizatuta dago, eta oso egoera prekariorioan lan egiten dute emakume horiek.

SOS Arrazakeriak eman dituen datuen arabera, Gipuzkoan 9.040 dira sektore horretan lanean ari diren emakumeak, horietatik 436 Oarsoaldean; %66 emakume migranteak dira.

Emakume horien guztien artetik, %36k ez du lan kontraturik, eta SOS Arrazakeriak jakinarazi duenez, etxe barruko langile direnek (internek) asetan 64 orduko lanaldiak izan ditzakete, eta dagokiena baino %38 gutxiago jasotzen dute soldatan. Are gehiago: Gipuzkoako etxeko langileen eta zaintza dabilzanen artetik %83k lanarekin lotutako gaixotasunak ditu.

«Zaintza-lana benetan duina izateko, lan baldintzek ere duinak izan behar dute. Komunitatearen ardura ere bada hori, eta administrazio publikoek badugu horretan zer egin. Ez da soilik udalerrri baten lana, eskualde mailan ere landu behar da», esan zuen prototipoaren aurkezpenean Mikel Arruti Lezoko alkateak. ■



Esther Sagasti Orodea
Ana Elizondo Iriarte
Barne Diseinua

Santxoenea 31. Erretera. 679 70 39 44 - 605 76 53 16
www.sagastielizondodecoracion.com



Fernández - Valderrama Egaña
HORTZ KLINIKA
www.fernandezvalderramaegana.com
info@fernandezvalderramaegana.com

ONGI ETORRI!

Astelehenetan:
9:00-13:00 / 15:00-19:00
Astebetetik ostegunera:
9:00-20:00
Ostiraletan: 9:00-15:00

Tel.: 943 52 41 61.
Gure Zumardia 24, behea.
PASAI ANTZO



Tejidos
Ami
Oihalak

 [@tejidosamioihalak](https://www.instagram.com/tejidosamioihalak)
Martin Etxeberria kalea, 4.
Erretera.
Tel.: 943 52 55 84



M8

GURE AHOTSEK MUNDUA
ASTINTZEN DUTE



PROGRAMAZIOA PASAIAN

Martxoak 6

Jarduera parte-hartzailea: Auzoan bizikidetzaren sostengatzen duten ahotsak eta sareak (Elebitan).

Adinkideko kakorraz-lanak egiten dituztenek landutako pankartaren eredu.

Ondoren, luntxa.

📍 **Trintxerpe: Gernika plaza. 11:30**
Antolatzailea: Emakumeen arteko entzute taldea

Martxoak 7

Autodefentsa tailerra (euskaraz).

📍 **Donibaneko kulturgunea, erabilera anitzeko gela. 9:30-13:30.**
Antolatzailea: Bixi Bixi KE-Pasaiako Udala

Bertso-bazkari musikatua (euskaraz):
Nerea Ibarzabal eta Uxue Alberdi.

📍 **Donibane 14:00.**
Antolatzailea: Bixi Bixi KE-Pasaiako Udala

Martxoak 8

Elkarretaratzea (infomazioa udal webgunean).
Pasaiako Mugimendu Feminista.

'Lore Moreak' haurrentzako jolasak.

📍 **Trintxerpe: Azkuene parkea 12:00.**
Antolatzailea: Ekaitza gazte taldea



Martxoak 11

Ipuin-kontaketa: "Babak eltzetik ateratzen" (euskaraz).
Ixabel Agirresarobe Arzallus.

📍 **Antxo: liburutegia, 17:30-18:30**
Antolatzailea: Pasaiako Udala

Martxoak 13

Liburuaren aurkezpena eta solasaldia:
"Amaieratik hasi: Euskal feminismoa, aldaketarako paradigma" (euskaraz).
Naia Torrealdei Mandaluniz.

Donibane: Kultur aterpea. 18:30
Antolatzailea: Pasaiako Udala

Martxoak 31

Kafe-solasaldia:
"Feminismoa: gaur, orain, inoiz baino beharrezkoago?" (gaztelaniaz)

Antxo: Elokaldetodas (Zumalakarregi, 7). 18:00
Antolatzailea: Bekoz Beko Elkarte-Pasaiako Udala

Martxoan zehar

Emakumeen argazki-erakusketa digitala:
"MAREAKO emakumeak: eguneroko bizitza, zaintzak eta lurraldea".

📍 **4 barrutietako pantailetan**
Antolatzailea: Entre Orillas Elkarte-Pasaiako Udala

Egitarauan aldaketarik dagoen ikusteko, udal webgunea kontsultatu: www.Pasaiia.eus

HONDARRIBIA

Hilak 6, ostirala. 11:00etan, Martxoak 8 plazan, *Sare morea* osatzen jarduera ikastetxeekin.

Hilak 7, larunbata. 09:30etik, Jostaldi pilotalekuan, Bixi-bixi pala topaketa; 10:00etan, Itaiaren korrika saioa, hamaiketakoa eta *Emakumea eta kirola* solasaldia; 19:00etan, Itsas Etxean, *Akelarre* filma.

Hilak 8, Emakumeen Eguna. 11:00etan, Hendaia-Irun-Hondarribia arteko manifestazioa; 19:30ean, Polborinean, *Agnes Varda* filma.

IRUN

Hilak 6, ostirala. 17:00etan, Artiako

auzo elkartean, *Las sufragistas* filma; 17:00etan, Uxa elkartearen egoitzan, emakumeen topaketa antzerkiarekin eta otorduarekin; 17:15ean, Palmera Montero gunean, *Eskubideak, justizia eta ekintzak emakume eta neska guztientzat* horma-irudiaren margotzea; 19:00etan, Landetxa Auzo Elkartearen egoitzan, Asun Casasola Ipuin Lehiaketako hainbat lanen irakurraldia; 20:00etan, Amaia KZn, Ste Xeito konpainiaren *Feminissimas* antzezlan.

Hilak 7, larunbata. 17:00etan, Luis Mariano gizarte zentroan, *Una cuestión de género* filma; 17:30ean, Anaka-Puianako adinekoen egoitzan, *Figuras ocultas* filma; 17:30ean, Martindozenea gaztelekuan, Martxoaren 8ko marrazki lehiaketa (12-17 urte); 17:30ean, Artiako

gaztelekuan, giltzatakoren tailerra (12-17 urte); 18:00etan, CBA gunean, dancehall tailerra (18-30 urte); 18:00etan, Ospitale Zaharrean, DJ Celia Carrera; 19:30ean, Urdanibia plazan, Ketekalle taldearen kontzertua.

Hilak 8, Emakumeen Eguna. 11:00etan, San Juan plazan, elkarretaratzea; 11:45ean, Hendaia-Irun-Hondarribia manifestazioa Santiago zubira iritsitako da; 13:00etan, San Juan plazan, Itaiaren elkarretaratzea.

ERRETERIA-ORERETA

Hilak 6, ostirala. 09:00etatik, Orereta Ikastolaren Zamalbidetako egoitzatik herrigunerantz, MoreretaOn jarduera; 14:00etan, Merkatuzarren, emakumeen bazkaria; 18:00etan, Emakumeen Etxean, banderaren igoera eta Gabierrotara kalejira.

Hilak 7, larunbata. 12:00etan, Emakumeen Etxean, Mariasun Landa Sarien banaketa; 20:00etan, Lekuona Fabrikan, Idoia Asurmendiren kontzertua.



KABALA
etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak
943 53 57 51 / 605 76 52 14
Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com

AUTOTZEBITU
ETXERAKO ZERBITZUA
LEAPANDEGIA
GABIERRO HERRIGUNEA



Errenteriako euskal eskola publikoa
EGUNERO ETORKIZUN PAREKIDE BATEN ALDE LANEAN!

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO!

Bizarain ikastola
HH-LH 943-34 16 45 BHI 943-89 94 13

Cristobal Gamon HLHI
943-89 91 38

Cristobal Gamon BHI
943-89 94 41

KOLDO MITXELENA Herri ikastetxea
943-89 91 87

KOLDO MITXELENA BHI
943-89 95 00

Hilak 8, Emakumeen Eguna. 12:30ean, Herriko Plazatik, manifestazioa.

LEZO

Hilak 6, ostirala. 19:00etan, Kuadrillategiko gazteekin, sentsibilizazio saioa Iruntzen Lezoko Emakume Taldearen partaidetzarekin; 21:30ean, Ibai Ondon, bertso afari feminista Ekhiñe Zapiain eta Amaia Agirrearekin.

Hilak 7, larunbata. 12:00etan, Koldobide Gezala pilotalekuan, emakumeen esku pilota erakustaldia Maialen Pikabea eta Irati Lobeterekin; 19:30ean, Gezala Auditoriumean, *Ez gara alferrik pasako dokumentala.*

Hilak 8, Emakumeen Eguna. 12:00etan, Gurutze Santuaren plazatik, manifestazioa; 19:30ean, Gezala Auditoriumean, *Esne berriekin bertso saio literarioa* Uxue Alberdi eta Amoranterekin.

OIARTZUN

Hilak 7, larunbata. 16:30ean, Kontzeju-

pean, *Gure amonei eskertza* izenburupeko ekitaldia.

Hilak 8, Emakumeen Eguna. 12:00etan, Done Eztebe plazatik hasita, manifestazioa eta ekitaldia; 14:00etan, Girizia elkarte, bazkari beganoa eta Beatriz Egiabalen *Gregoria* bakarriketa; 18:00etan, Elizalde Herri Eskolako jolastokian, nesken herri kirol ikuskizuna.

PASAIA

Hilak 6, ostirala. 11:30etik, Trintxerpeko Gernika plazan, *Auzoan bizikidetzaren sostengatzen duten ahotsak eta sareak* jarduera, eta Adinkideko kideen kakorraz-lanekin landutako pankarta erduen erakustaldia.

Hilak 7, larunbata. 09:30etik, Doniba-

neko Juanba Berasategin, autodefentsa tilerra; 14:00etan, Donibaneko Bixi-Bixi elkarte, bertso bazkari musikatua Nerea Ibarzabal eta Uxue Alberdirekin.

Hilak 8, Emakumeen Eguna. 12:00etan, Trintxerpeko Azkueneko parkean, haurrentzako *Lore moreak* jarduera; barrutietan egin daitezkeen elkarretarazteetan parte hartzerako deitu du Pasaia Mugimendu Feministak.

Martxoaren 8tik aurrera herri guztietako emakumeen taldeek antolatutako ekitaldi askoz gehiago daude. Horien berri izateko joan ondoko webguneetara:
bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus



HERRI ESKOLA HH-LH 943 89 93 92
INSTITUTUA DBH 943 89 92 83
WWW.ELIZALDE.EUS
MANUEL LEKUONA 5, OIARTZUN

HITZAKIDE

TXOKO MOREA



Parte hartzeko joan Hitzakide Txokora martxoaren 4a baino lehen



Karmele Fernandez Boga

Luzaro Errezilgo sagar dultzea

Errezilgo azoka



Ane Beltran Errandonea

Sutargiren poltsa

Ekonomia zirkularreko ekosisteman material birziklatu bitartez emakumeek egindako produktuak.

@sutargisal
www.sutargi.org



Junkal Mintegia Arregi

Maria Altuna Lizarraga ilustratzailearen lamina bat

ITSASO BAT. 30x40 cm

@mariaaltunalizarraga
eu.mariaaltunalizarraga.com



'Familian asko gara' liburua

Ara! Gorputzen lan ildo nagusiak hilekoaren zikloa, ekonomia feminista, antiarrazakeria eta ekofeminismoa dira.

Luisa Sanchez Iñigo

aragorputz.eus



Mari Oiartzabal Etxebeste

Kiribilak-en diru-zorroa

Sormen espazioa eta artisautza denda Beasainen.

@kiribilak
www.kiribilak.com

Aiala Aristizabal Lekuona

Bilgune Feministaren produktu sorta



Egutegia, koaderno, 'Gorputzen burujabetza' liburuxka eta lamina bat.

www.bilgunefeminista.eus

KONFIANTZA BIDEA

Martxoak 8



Tel.: 943 52 46 87
Herriko Plaza 7 - Erreteria

IKASTOLAK EUSKALDUN PAREKIDEAK HEZTEN



INVEREADY GIPUZKOA BASKET
MARTXOA EGUTEGIA



FLEXICAR FUENLABRADA
MARTXOAK 11 20.00
J.A. GASCA



AIR CARGO BOOKING OURENSE
MARTXOAK 7 18.00
J.A. GASCA



SUPER AGROPAL PALENCIA
MARTXOAK 21 18.00
J.A. GASCA

BERDINTASUNETIK ELKAR ZAINDUZ

MARTXOAK 4 18:00 Sentsibilizazio saioa Ludotekan

MARTXOAK 6 19:00 Sentsibilizazio saioa Kuadrillategin
21:30 Bertso-afari feminista

MARTXOAK 7 12:00 Emakumezkoen esku-pilota erakustaldia
19:30 'Ez gara alferrik pasako' dokumentala

MARTXOAK 8 12:00 Manifestazioa
19:30 'Esne berriketan' bertso-saio literarioa

MARTXOAK 11 18:00 Berdintasun Kontseiluaren
aurkezpena


MARTXOAK 13 19:30 'Ongi etorri' helduentzat ipuin
kontaketa

MARTXOAK 15 19:30 Adelaida bikotearen kontzertua

MARTXOAK 25 18:00 'Salaketatik harago: presioak,
aukerak eta biktimen erabakiak' hitzaldia



**HITZ
GEZIDUNAK**

	Gizon izena	Urtetsua	Barazki hostotsua	Aberats bihurtu	Egitasmoa
	◆ Deitura	Emakume izena	◆ Izena	Sortu zintuena	Senidea
Sufrimendua	Partiketa				
Fisikaren adarra	Barrena		Aranondoan fruitu		
Laborarien lanabesa	Tximino handiak		Lehenengo letra		
		Intsektu hegalaria		Gipuzkoako udalerrria	
		3,1416		Intsektu hegalaria	
Arkuak marraztekoa			Nafarroako urtegia		Dardara
Aro, aldi			Zeuden		
		Urania	Tente		Bokal mehea
		Kakiondo-aren fruitua	Seta		Bizkor
Naizen honek		Goporak			
Bilkura		Norat atzizkia			
			Gaixo		Jainko egiptoarra
			Bokala		Atzizki femeninoa
Katuaren ume				Jaun ingeles	
Beldurti				500	
			Taldea		

Lehiaketan parte hartzeko, bidali hitz gezidunak osaturik **688 77 07 52** zenbakira whatsapp bidez (argazia atxikituz), **denborapasakobh @hitza.eus** helbidera (gaian 'denbora-pasak zozketa' jarrita) edo OARSO BIDASOKO **HITZAKO bulegora** (Irun kalea 8, Errenteria-Orereta) eramanda. **Epe muga:** datorren asteazkeneko 12:00ak arte jasotako orrialdeak izango dira onartuak.

SUDOKU

1-9 zenbakiak idatziz, bete itzazu 9x9 laukian hutsik dauden gelaxkak, kontuan zanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen ilara eta zutabe berean, ez eta dagokion 3x3 laukian ere.

	1		9		8	5		
	9							
			4		2			
	2	5	9			8	4	
			3		4			
4	8				5	9	6	
		6			3			
							2	
	4	2		6			1	

**OTSAILAREN 27ko
ASTEKARIKO
DENBORAPASEN
ERANTZUNAK**

A	L	T	A	M	I	R	A
M	A	L	A	R	I	A	
A	L	A	R	M	A		
A	R	A	M	A			
A	R	M	A				
A	M	A					
A	M	A	I				
M	A	I	N	A			
M	A	K	I	N	A		
M	A	R	K	I	N	A	
M	O	N	A	R	K	I	A

GOITIBEHERA

**HITZ
GEZIDUNAK**

■	■	■	■	E	■	A	■	B	■	E	■	T
■	■	■	■	I	■	G	■	O	■	R	■	A
■	■	■	■	I	■	G	■	O	■	R	■	A
■	■	■	■	A	■	L	■	A	■	N	■	B
■	■	■	■	A	■	L	■	A	■	N	■	B
■	■	■	■	F	■	R	■	E	■	N	■	O
■	■	■	■	F	■	R	■	E	■	N	■	O
■	■	■	■	M	■	A	■	K	■	U	■	R
■	■	■	■	M	■	A	■	K	■	U	■	R
■	■	■	■	K	■	A	■	S	■	I	■	K
■	■	■	■	K	■	A	■	S	■	I	■	K
■	■	■	■	G	■	A	■	B	■	E	■	A
■	■	■	■	G	■	A	■	B	■	E	■	A
■	■	■	■	Z	■	I	■	L	■	L	■	A
■	■	■	■	Z	■	I	■	L	■	L	■	A
■	■	■	■	H	■	A	■	L	■	A	■	R
■	■	■	■	H	■	A	■	L	■	A	■	R
■	■	■	■	G	■	A	■	J	■	O	■	S
■	■	■	■	G	■	A	■	J	■	O	■	S
■	■	■	■	M	■	A	■	K	■	E	■	A
■	■	■	■	M	■	A	■	K	■	E	■	A



OARSO BIDASOKO HITZA
Irun kalea 8, behea
20100 (Errenteria-Orereta)



HITZAKIDEen
TXOKOA

URTEKO HARPIDETZA KUOTA 85€

DENBORAPASAK



ASTEKO SARIA MAHALAREN PRODUKTUEN SASKIA

Mahala Baserria - Leaburu.
info@mahala.eus
www.mahala.eus



DENBORAPASEN SARIDUNA EDURNE EMAZABEL IZAGIRRE

LA PERLA TALASO ZIRKUITURAKO
BONUA. Bi lagunentzako forman
jartzeko Talaso Zirkuitua
www.la-perla.net



Kultur emanaldi guztietarako sarrera bikoitza
ADI! ASTERO SARRERA BERRIAK HK TXOKOAN



HILABETEKO ZOZKETA



Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia:

61

LA PERLA
FORMAN JARTZEKO TALASO
ZIRKUITUA
Lagun batentzako bi sarrera

Kontxako pasealekua z/g
Donostia
Tel.: 943 45 88 56
www.la-perla.net



Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia:

62

**URDAIBAI BIRD
CENTER**
Bi lagunentzako bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
Tel.: 946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
www.birdcenter.org



Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia:

63

**LEITZARAN
FERRATA BIDEA**
Lagun batentzako bi sarrera

www.leitzaran-andoain.eus

Zozketan parte hartzeko deitu 943 09 06 08 telefonora edo sartu gure webguneetako HITZAKIDE TXOKOA atalean, apirilaren 22a baino lehen. Saridunen izenak apirilaren 26an argitaratuko ditugu.

Zozketetan parte hartzeko egin zaitez HITZAKide!

Nola? 943 34 03 30 zenbakira deituz edo sartu oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan edo bidasoa.hitza.eus/hitzakide/izan helbideetan.

Bilakaera sentsoriala

MÓ-k Adimen Artifiziala zure begiradaren zerbitzura jartzen du

2. betaurreko progresiboa opari

MULTIÓPTICAS

943 14 28 17
Jose M^a Sert 4 - ANTIGUO
DONOSTIA **Optika & Entzumena**



hitzordua
eskatu



943 51 78 11
Koldo Mitxelena 7
ERRETERIA

943 32 66 49
C/ Nueva 15 - GROS
DONOSTIA



943 63 99 01
Mendibil M.G.
IRUN



www.multiopticas.com

